

ttüpi-ttapa

1995eko martxoak 16 • 154. zenbakia

Erreportaia

**Lanaren esklabo ez izateko
lau baserri elkartu dira Saran**

Elkarrizketa

**Oskar Goñi
intsumiso beratarra**



Antton MAIZ

ERRALDOIAREN ADIOA

MUEBLES METS

mobleak orokorrean

Bidasoa karrika 45-60 • © 948 - 630537 • BERA

ERAKUSKETA BERRIA SOFAK - JANTOKIAK



...eta opari gisa lanpara halogeno bat

BISITA ITZAZU GURE LAU ERAKUSKETAK

- Sukaldeak, bainuak, paretako armairuak
- Senar-emazteendako logelak
- Seme-alabendako logelak
- Sofak eta jantokiak

ESKEINTZAK

- BAINUKO MOBLE LAKATUA (80 zm)
 - MARMOLA
 - ISPILUA
 - TXORROTA MONOMANDOA
 - MOBLEAN SARTUTAKO KONKETA (lavaboa)
- 49.990 Pta.**

MUELLEZKO KOLTZOIA (3 urteko garantiarekin)

90	105	135
15.000 Pta.	16.800 Pta.	21.000 Pta.

...eta opari gisa laminazko somier bat

Oskar GOÑI:

«Intsumisioa indartzearekin batera estatuak erantzuna gogortu du»

DATUAK

❖ Oskar Goñi berako 22 urteko gaztea da. Ostatuan aritzen da lanean.

❖ Intsumitua izaki, abenduan epaitu zuten eta bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigor famatua ezarri diote.

❖ Herriko bertze hiru gazte gartzelan sartu berriak dituzte eta noiznahi bere bila etorriko direla espero du.

❖ Berako Talde Antimilitaristako kidea da eta egunotan burutuko den Bidasoaldeko I. Hamabostaldi Antimilitarista antolatzen aritu da.

❖ Talde honetakoak, asteazkenero biltzen dira arratseko 8etan lamotenean.

INTSUMISIOAREN EGOERA NOLA IKUSTEN DUK?

Bi ikuspuntu ezberdin somatzen dira. Intsumisioa mugimendu bezala gero eta gehiago indartzen ari da. Bertzalde, intsumisioaren aurrean estatuaren estrategia gero eta gogorragoa da. Bi aldeetatik erradikalizatzen ari da; jendea intsumisioaren alde dago gero eta gehiago, eta bertzalde, kondenak gogortu eta betearazten dituzte.

GIZARTEAK NOLA IKUSTEN DIK MUGIMENDU HAU?

Nahiko onartua dago, baina alde egotetik horren alde borrokatzera edo lan egitera, puska dago. Azken batean, bustitzen direnak intsumisio egiten direnak dira. Eta herri gehienetan intsumisio izateko erabakia hartzen dutenak gutti dira. Jendeak ez du soldaduska egin nahi, baina irtenbide errexak bilatzen ditu; objezioa, entxufismoa eta horrelakoak...

ETA ZER EGITEN AHAL DA INTSUMISIOA LAGUNTZEKO?

Aukera errex horiek alde batera utzita, norberaren kontzientzia-



rekin kontsekuente izan eta intsumisio egin. Kontzientziaren borroka garaitua dugu, baina legearen alde, hutsunea dago. Hori aldatzearen erantzunkizuna politikoena da. Hitz politik erran bai, baina errepresioaren bidetik segitzen dute.

► *“Jendeak ez du soldaduska egin nahi baina irtenbide errexak bilatzen ditu; objezioa, entxufismoa eta horrelakoak... Hori alde batera utzita, norberaren kontzientziarekin kontsekuentea izan behar da.”*

HIRU HERRITAR KARTZELERA SARTU BERRI DITUZTE. HIRE BILA ERE ETORRIKO DIRELA JAKINIK, NOLA SENTITZEN HAIZ?

Hori onartua dut eta ez nau sorpresaz harrapatuko. Jakinaren gainean egonez gero, ezberdina da, eta zer gertatzen ahal den abisatzen duzu etxean.

INTSUMISIOA ATXILOTZERA JOAN ETA TIROZ ZAURITU DUTE ELIZONDON. ZER BALORAZIO EGITEN DUK?

‘Eltzetzen’ porta-

era badakigu nolokoa izaten den erreka honetan. Neurritz kanpoko iruditu zait.

ZEIN HELBURUREKIN ANTOLATU DUZUE BIDASOALDEKO HAMABOSTALDI ANTIMILITARISTA?

Jendea intsumisioaren mugimenduaren gana hurbiltzeko eta kontzientziario lan bat egiteko. Bakoitzak bere aldetik ibili beharrean zonalde guztia bildu nahi izan dugu egitasmo baten inguruan.

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA



LANAREN ESKLABO EZ IZATEKO, LAU BASERRI ELKARTU DIRA SARAN

agustinen Bordan ezarria dute beren egoitza soziala 'Geroari' elkarte osatzen duten lau baserriek; Omordi, Muga Alde, Atxuri Alde eta Agustinen Bordak, alegia. Frantziako legediaren arabera, elkarte honen izaera juridikoa GAEC bezala ezagutua da, erran nahi baita (Groupement Agricole d'Exploitation en Commun). Nolabait erraitekotan 'GAEC' a kooperatifa baten iduritsua bal-

din bada ere, ez da zehazki gauza bera juridikoki. Sarako hau, Euskal Herrian gisa honetako esperientzia bakarra da, 'aitasemeen artean egiten dira holako GAEC-ak dirulaguntzak ukaiteko, baina bertzenaz, Euskal Herrian ez da gurea bezalako bertze esperientziarik' diote.

BEHIAK ETA ARDIAK

Lau baserrietatik bik ardiak dituzte, eta biak elgarretartatu ondotik, 500 ardiko artaldeak du egun Geroari Elkarteak. Bertze bi baserrietan

behiak zituzten, eta denak elkartu ondotik 130 buru dituzte gaur egun. Horietatik 60 migak dira, eta bertze 70ak berriz, esneko behiak. Behi-esnearen produkzio kuotari dagokionez, denetara 450.000 pintakoa (litro) da Geroari elkarteak duen kuota.

ELGARRETARATZEAREN ARRAZOIAK

Omordiko Jan Battite Indartek ez du inolako zalantzarik lehendabiziko arrazoia zein den erraitekoan. 'Lehenbiziko gauza bizimanageren-

Baserrri bateko edo bertzeko zenbait lan erraxago eta fiteagoa egiteko auzokoak elgarretaratzea ez da gauza arraroa, baina lau baserri, beren ondasun guziekin elgarretaratzea, oraindik orain arraroa da Euskal Herrian. Saran abiatu berria da Iparralde osoan zentzu honetan lehenbizikoa den esperientzia. Lau baserrik beren lurrak, azindak eta makinariak bildu egin dituzte eta guzi horiekin 'Geroari' izeneko elkarte osatu berri dute. Zertarako? Funtsean, bakoitza bere aldetik dutena baino bizimanagera hobea izateko lavak elkarturik.

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
JOXEMANUEL IRIGOIEN

gatik. Zerbait gertatzen bada, norbaitek mina hartu edo bertze zerbait, modu honetara elkar laguntzeko modua izanen dugu. Gero, egun batzuk hartzea ere, badakizu... bat aspertu egiten da beti-beti egunero behiak deitzen aritzeaz ere'. Atxuri Aldeko Beñat Azkarraga ere iduri berekoa da, 'bakarrik dagoena esklabo bezala da, ez du inolara egiteko, bakoitzak berea badu eta haren egiten badu lanik aski'.

HASIERAKO URRATSAK
Otsailaren lehenetik hasiak

dira lau baserrietakoak elgarrekin lanean. Halere, oraino ezin izan dute asteburutan txandaka libratzen hasi. Izan ere, ardiak denak elgarretaratuak dituzte, baina behiak ez oraino. Horretarako behitegi berria egiten haste-koak dira laister, eriaro aldean (ekainan) segurki. Geroago, behi guziak elgarretaratuko dituztenean, haiekin lan egiteko manera ere erraxtu egingen zaie.

GASTUAK ETA DIRULAGUNTZAK

Aipatu diren obrak egiteko dirulaguntza ederrak hartuko dituzte, 'Ehunentzak hogeita hamar inguruan (%30), eta diru hori, gero itzuli behare ez den dirua da'. Gastuak ere gaitzak dira, 'denetara ehun milioi libera xahar (25 milioi Pta.) baino gehiago. Hogeita hamar milioi subentzio gisa hartuko dugu, eta gainerako 80 milionak, onartua den kredituaren bitartez' dio Jan Battitek.

ANIMALIAK ETA MAKINAK GAEC-AREN IZENEAN ETA JORNALA DENENTZAT BERDIN

Bakoitzaren azindak eta makinariak elkartearen izenean ezarriak dituzte, eta lurrak ere, errentan emanak dizkiote elkarteari. Gisa horretara antolatua dira denak kapital berdina izateko. Bertzalde, hilabetero denak jornal berdina dute. Jornal hori lanarengatik ordaindua izanen da, eta ez bakoitzak ezarria duen kapitalaren arabera.

Makinariari dagokionez, 'nahikoa eta sobera ere' ba omen dute dagoeneko, eta ez dute gehiagoren beharrik ikusten. Zentzu honetan Jan Battitek dioenez, 'ondoko urteetan ezagutuko dugu diferentzia hori; tresnetan gastu gutiago izanen dugu aise!'. Beraz, lauak elgarretaratutik irabaziak hobetzeko manera ere ikusten diote 'Geroari' elkartekoak.

...ETA ELKARTEA GAIZKI MOLDATUKO BALITZ?

'Sozio muntatu aitzin estudiantzen da lehenik haserretuta



zer gertatuko den eta nola bereixi' dio Jan Battitek.

Hortaz, 'bakoitzak zer duen ekarria hura berriz hartuko du. Hori hasieratik kalkulatu dugu. Horrela ez da fi-

ELGARREKIN HASI BERRIAK DIRENEZ, ASTERO BILTZEN DIRA AGUSTINENBORDAKO ANTON ETXURIALDEKO BEÑAT ETA ELIXABET AZKARRAGA, MUGALDEKO FELIX BERHAU ETA OMORDIKO JAN BATTITE INDART EUREN ARTEAN SOLAS EGITEKO ETA MARTXA HARTZEKO.

tsik irriskatzen!' dio Beñatek. Itxura guzien arabera, seguru-

tik jokatu dute 'ez baita itsu-itsuan joaiten ahal holako gauza batean'. Inundik ere, gisa honetan muntaturik, laborantzak bado etorkizunik. ■

«Laborantzatik bizitzen ahal da, bainan esklabo! Hortxe dago problema»



Jan Battite INDART
Omordikoa

Animaliekin lan egiten duenak, egunero behar du haien gibeltik ibili. Baserritik bizi denak badaki ongi aski hori zer den. Baserriak elgarretaratuz, zera hori aisa hobekiago erematen ahal da.

Guk hala pentsatua dugu; bakoitzak bi igandetik bat libro izaitea, eta urtean hamabortz bat egunez bakan-tzak. Ideia horrekin abiatuak gira bizimanageraren hobetzeari buruz. Egun batez biltzar bat egin ginuen, zerbait behar zelakoz pentsatu noizbait norbaitek mina hartzen baginuen. Gero, haren ondotik berriz solastu ginen eta Beñatek erran nauen be-

ra prest zegoela sozio izateko. Azkenean lau bildu gira, bi ardiekin eta bertze biok behiekin. Lauon ondasun guziak elkartearen izenean dira eta baserri bakoitzaren lurra GAECaren izenean daude errentan, eta orain arte errentan ditugunak, haien errenta ere GAECak pagatuko du.

Hilabetero bakoitzak gure jorنال dugu Anton, Beñat, Felix eta neronek, denak berdina, eta Maritxu egun erdiz ari denez, berak erdia du. Gero, urtearen buruan irabaziak baldin badira, haiek denen artean banatuko ditugu. Beraz, lana pagatuko dugu, ez kapitala.

REG. GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.950 ALE

DISTRIBUTORRA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-
en. **Publizitatea:** Miren Kar-
le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
Arozena, Joxemanuel Irigoien.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
zeta, Juainas Paul, Kristina
Boan, Bittori Telletxea.
Erredakzioaileak: Joseba Azpiroz,
Aitor Arozena, Juana Mari
Arozena, Ainhoa Mutuberria, Iban
Arozena, Txema Aldabe, Pello
Apezetxea, Txema Urroz, Patxi
Arozena, Daniel Martirena,
Aitor Arozena, Josune Etxebeste,
Aitor Mendiburu, Joseba
Apezetxea, Alizia Olaizola, Margari
Arozena, Koro Irazoki, Mixel
Arozena, Jacqueline, Elixabet
Arozena, Garbiñe Maiz, Oskar
Arozena, Alberto Sansiñena,
Aitor Apezetxea, Aitor Arozena,
Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:**
Aitor Arozena, Patxi Lasa, Mikel
Arozena, Joxe Javier Etxe-
Arozena, Arantxa Zabala...

Erredakzioa: Gertu (Oñati).
Erredakzioaileak: ttipi-ttapa ez du bere gain hart-
zenen derrigorrez, aldizkarian adie-
tatuak erranen eta eritzien eran-
kizunik.

Kunde Laguntzaileak: Bera,
Arozena, Goizueta, Areso, Baztan,
Arozena, Zugarramurdi eta
Arozena udalak, Bortzirietako
Arozena Mankomunitatea,
Arozena errekerako Zerbitzu Mankomu-
nitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Arozena laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (ESO) eta euskara

Eskola Mapa sare publikoarentzat soilik egina dago



Fermin ALTZUGARAI
Lesakako Ikastola

LOGSEren gara-pena gauzatzeko Nafarroako Ad-ministrazioak aurkeztu duen Eskola Mapari buruz erran beharra dago, arras manera iz-
kutuan egina izandu dela. Irakaskuntzan partaide garen estamendu ezberdinak, hau da, guraso, irakasle, ikasle... parte hartzerik ez baitugu izan, eta gainera hanka motz gelditzen da sare publikoarentzat soilik egina baitago. Horren aurrean, gure hezkuntza ere-
duak dituen ezaugarri eta be-
harrak kontuan hartuz, Ikas-
tolen Elkartek Hezkuntza sai-
lari mapa propioa auzkeztu
genion eta handik hartutako
erantzunaren arabera hain-
bat ikastolen etorkizuna era-
bat kezkarria dela erran de-
zakegu. Berrito ere, Euskara
edo Euskarazko irakaskuntza
tartean daudenean, eta hau ez
dut ikastoletara bakarrik mu-
gatzen, noski, Administrazio-
aren erabakietan aurreritzi
ideologiko eta ekonomizistak
nagusitzen dira.

Gurasoei honen berri emateko bilerak izanen dira



Pedro BAÑARES
Lekarozko Guraso Elk.

Auniztan aditu dugu bainan deus guti daki-
gu DBHaz. Teorikoki, hez-
kuntza erreformaren barnean,
12-16 urteko gazteen heziketa
etapa betetzea bilatzen da. Bi
zati ditu, bakoitza bi urtekoa.
Nafarroan, 95-96an ezarriko
da lehen zikloa. Erreforma honek
aldaketak ekarriko ditu ikas-
tetxeetan; ikasleen mugikor-
tasuna... Eskola Mapan dau-
den eskualde burutan biltze-
ko: Bortzirietakoak Beran,
Malerrekakoak Donezteben,
Baztanen Lekarozen...
Azaroaren hondar aldera zona
honetako ikuskari edo ins-
pektorearekin kontaktu bat
izan genuen, eta martxo ha-
sieran berriz bildu gara nahiz
eta jakin afera kasik erabakia
dagoela. Detalle batzuk falta
dira; gurasoen eritzia bildu
ikastorduei buruz (zatituak
edo dena segidan, ...).
Hilabete honen hondar alde-
ra, 7-8. mailan ikasleak dituz-
ten gurasoekin, honen berri
emateko, bilerak egingen dira,
eta DBHa zer den erranen di-
gute, zertarako den, aterabi-
deak, ordutegiak, ikasgaiak...

Leitzan DBHa erabat euskaraz izanen dela aurrera dezakegu



Santi LARRAZ
Leitzako Lanide Eskola

Datorren ikas-
turtean ezarriko da Derrigorrez-
ko Bigarren Hezkuntza (DBH)
jakina den bezala.
Leitzako OHOk ikastetxean
aurkitzen diren 430 ikasleen
arte, bakarrik 25ek ikasten
duten A eredu eta, horrela
segituz gero, hemendik 4 ur-
tetara ez litzateke inor geldi-
tuko azken 4ek 4 kurtsoari eki-
ten diotenez.
Beraz, DBH erabat euskaraz
izanen dela aurrera genezake,
nahiz eta oraindik ez jakin zein
irtenbide emanen zaien A ere-
duko azken ale horiei.
Bertako matrikulari begiratu-
z, datorren ikasturtean 41 ikasle
izanen dira lehen zikloko le-
henbiziko kurtsoko D eredu eta
5 ikasle A eredu.
Bigarren kurtsoan berriz, 59
ikasle D eredu eta 6 ikasle
A eredu. Hauei erantsi be-
harko zaizkie eskualdetik da-
tozenak.
Ikuskaritaz jakinerazi di-
gutenez, gutxienez 2 batxilergo
emanen dira Leitzan, bai-
nan baliteke 3 izatea. Guztia
matrikularen arabera joanen
da.

LECARERA

Martxoaren 31
bitarte
baliagarriak dira

ESKAINTZAK	145 Pta.	142 Pta.
• 'Paper Mate' boligrafoak	145 Pta.	142 Pta.
• 'Imedio' pegamentoa	135 Pta.	115 Pta.
• 'Parker' boligrafo errekanb.	355 Pta.	320 Pta.
• Diskete-kaxa giltzaduna	1.125 Pta.	795 Pta.
• Telefono listina	950 Pta.	725 Pta.
• 'Instant' pegamento solidoa	195 Pta.	95 Pta.
• 'Paper Mate' errotuladorea	155 Pta.	137 Pta.
• 3.5" HD disketeak - 3M	240 Pta.	147 Pta.
• 'Pilot B-Ball' errotuladorea	255 Pta.	225 Pta.
• 'Noris 0.5' portaminak	165 Pta.	122 Pta.
• 'Fastener' dossier karpetak	85 Pta.	62 Pta.


ttipi-ttapa

6.000 harpidedun
20.000 irakurle

ttipi-ttapan
Zure klienteek
ikusiko dute
zure publizitatea

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



Zer eramanen zenuke irla huts batera?

Jaione OTXANDORENA

(Sunbilla)
Baztango Bertso Eskola
Neurria: Zortziko Haundia

Aukera ederra eman didate irla batera joateko maletatxo bat prestatuko dut gauz batzuk eramateko kasseta eta bizpahiru zinta aditu eta dantzatzeko bikini edo bainujantzia gorputza beltza jartzeko.

Nire maletan montatuko da kriston nahaste-borrastea irla hortan ez naiz aspertuko hala dut behintzat ustea deskantsatzeko eramango dut logelan dudan ohea eta konpaini ona izateko nere mutiko gaztea.



Intsumituari tiro

Zugarramurdi, Baztan-Bidasoako Talde Antimilitaristak gogorki salatu nahi du:

- Joxe Mari Ballarenaren atxiloteta. Erabilitako gogorkeriak Intsumisioaren kontrako errepresioaren indartzea suposatzen baitu.
- Erabat arbuigarria deritzogu inguratuta eta eskuak goratuta dituen norbait balaz zauritzea. Zertan da ba "Estatuaren Intseguritate Indarren" profesionaltasuna? Gertaera honek buru militarizatu hauen "argitasuna" agerian uzten du.
- Bidenabar, atxiloteta salatzeke plenora Union Baztanesa udal taldea ez agertzea lotsa emangarria iduritzen zaigu. Gertaera triste hau ez omen da udal gaia.

- Joxe Mari ez al da ba baztandarra?

- Ez al da Baztanen gertatu?

- Non gelditu dira bakearen aldeko hitzak?

- Zeren beldur dira?

• Euskal Herria desmilitarizatzea guztiz beharrezkoa ikusten dugu, honelako kasuak gure Herrian maizegi gertatzen baitira.

Akitzeko Joxe Mariri gure elkartasuna adierazten dio-

gu gurekin berehalaxe izango delakoan.

Intsumitu presoak kale-ra!! Armadarik ez!!

ZUGARRAMURDI, BAZTAN-BIDASOAKO TALDE ANTIMILITARISTA



Kaixo nafartarrok:

Gasteizko 14 urteko 3 neska gaituzue. Olabide ikastolan gaude OHOkorantzigarren mailan eta uztailleko zenbait egunez gure euskara maila hobetu nahi genuke. Honekin batera, baserri giroa ezagutzea ere erabat aproposa izango litzatezuke. Zuetarikoren bat (batzuk) prest balego (bazeundete), deitu zuen galdera edo baldintzak jakinerazteko. Tfnoa: 945-134047 (Goizez, 8-1etara eta arratsaldez, 3-5etara. Esker mila.

GASTEIZKO OLABIDE IKASTOLAKO HIRU NESKA



Goizuetako A.J.E.A.ri

Lotsa eta nazka sentitzen duzun herritar horietako bat naiz, hau da, duela 3-4 urte erreka bazterrak garbitzera mobilizatu ziren, ekin-tza sinbolikoa eginez (sinbolikoa baino gehiago izan

zelakoan nago) hoietako bat. Eta esan nahi nizuke, eta ongi azpimarratuta, arrazoi guziaz duzula bai zaborteziaren egoera, bai ondorioak salatzerakoan. Horregatik animatu nahi nizuke jendea biltzeko eta irtenbideak aurkitzeko deia egitera, duela 3-4 urte egin zen bezala, zabor guztia biltzera joan behar baldin bada ere, eta ez utzi dena besteak egin behar dutelakoan, herritar askok egin ohi duen bezala eta gero egindakoa eta egileak kritikatzeko lehenbizikoak. Bestalde, jakin nahi nuke kanpoko politika kontuak aipatzen dituzunean esan nahi ote duzun presoeren borroka eta horren ondorioz beraien egoera tamalgarria, eraberean deportatuen, soldaduskako arazoarena, euskararena, langabetuenak eta abar luze baten kontuak, ez direla herritarren kontuak?

IÑIGO ELIZEGI GOIZUETA



LESKA

KATTU
OSTATUA
JATETXEA

MATXINBELTZENA

LESKA

Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxe: 62 75 53 • **LESKA**

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



ARGIA 95-III-5

«Ahal dudan ondoen kantatzera noa, irabazteko beste aukerak etorriko baitira».

Xabier LEGARRETA
Aranoko bertsolaria
Argia aldizkaria 95-III-5

«Nafarroa Oinezek 51 milioi pezeta utzi ditu Beran. Datu hori ospatzeko modukoa izan beharko luke, baina inork ezin du ahantzi, arrakasta hori behar bezala ospatzea ebatsi egin zigutela».

zoritxarreko gertaera haiek».

Jose Mari LERTXUNDI
Labeaga Ikastolako ardezkaria
Diario de Noticias 95-III-10

«Lau lehenbizikoan artean egoten ahal ginen futbol zelaietara gauza, politik egitera joan beharrean garaipenaren bila joanen bagina».

Manu MUNARRIZ
Baztan Futbol Taldeko entrenadorea
Diario de Noticias 95-III-7

◆ **Futboleant zu zeu aritu edo bertzeak entrenatu?**

- ❖ Ni aritzea nahiago dut.
- ◆ **Mutikoek errespetatzen dute emakume entrenatzailea?**
- ❖ Bai, inolako problemarik gabe.
- ◆ **Kirol argazkia edo erretratua?**
- ❖ Erretratua nahiago dut eta zailagoa da: argiak modu egokian kolokatu behar dira.
- ◆ **Zer ez zenuke fotografiatuko?**
- ❖ Ez dakit, jokoan kanpo harrapatu didazu.
- ◆ **Diapositiba, koloretako argazkia edo txuribeltzeko argazkia?**
- ❖ Diapositiba, denborarekin hobeki mantentzen baita.

◆ **Gehien gustatzen zaizun jakia?**

- ❖ Makarroiak.

◆ **Eta guttien gustatzen zaizuna?**

- ❖ Berdurak.

◆ **Aktore bat?**

- ❖ Kevin Costner.

◆ **Telebistako programa bat?**

- ❖ Kiroletakoak gustatzen zaizkit gehien, 'Kirolez kirol' eta horrelakoak.

◆ **Denbora aunitz izanez gero, zer eginen zenuke?**

- ❖ Badut bat, bainan kategori haundiagoko futbol titulu bat ateratzen saiatuko nintzateke.

◆ **Zein da gehien irakurtzen duzun aldizkari-egunkaria?**

- ❖ Diario Vasco.



Idoia TELLETXEA

Lesakako futbol entrenadorea eta argazkilaritza ikaslea

LABE ZAR
© 631076 • BERA

SAROBÉ
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GOZOTEGI - JARONE

Itzea 3 • 630786 • BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

ZIZKA OSTATUA
Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 • BERA

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K. 82 - 31780 BERA
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

Bera

3.557 biztanle ginen urte hasieran

Joan den urtean baino sei gehiago

KRISTINA BOAN

3.557 bizilagun ginen Beran urte hasieran, udalak onartutako erroldaren arabera. Joan den urtean sei biztanle guttiago ginen. Kopuru horretatik 1.827 gizasemeak dira eta 1.724 emakumeak. Halere, azken urtean izandako sei altak emakumezkoenak dira, gizonetzkoen kopurua berdin mantentzen baita.

Udalaren erabakiak

Ultzamako Danone enpresako langileekiko elkartasuna adierazi du udalak ahobatez azken udal batzarrean. Eraberean, lantegia martxan segitzea eskatzen diote instituzioei. Bertzalde, batzar berean Itoizko urtegi-ko lanak gelditzea eskatu zuen udalak. Mozio honen alde, HBko zinegotzi batek botatu zuen eta gainerako seiak abstenitu egin ziren.



Hamar segundu bertzerik ez da bi argazki hauen artean. Ez du nahi bezala hasi Juan Karlos Garrok 'Coronas' txapelketa. Atera bezain abudo puskatu zuen katea Tolosako proban. Halere, ziur gaude behin baino gehiagotan podiumean ikusiko dugula Argazkia: Oskar TXOPERENA

Bidasoaldeko Hamabostaldi Antimilitaristaren hainbat ekitaldi Beran burutuko dira

Bidasoaldeko I. Hamabostaldi Antimilitaristaren hainbat ekitaldi Beran burutuko dira, martxoaren 18an hasi eta 31a bitarte.

18an, larunbata, 6etan martxa bat aterako da Iamoteneatik Lesakara. Biharamonean, 4etan mus txapelketa Iamotenean eta 7,30etan 'Jeremiah

Johnson'en kantaldia Zizkan. 21 eta 22an, astearte eta asteazkena, arratsaldean kartel erakusketa Kultur Etxean. Martxoaren 25ean, larunbata, bazkari herrikoia Iamotenean. 6etan, leku beretik kotxe karabana ateriko da Irungo manifestaziora joateko. Martxoaren 26an,

igandea, arratsaldean zehar polikiroldegiko paretan mural pintaketa. Martxoaren 31an, ortzirala, 8etan ordezko zerbitzu sozialari buruzko bideo eta hitzaldia emanen da Iamotenean. Berako talde antimilitaristak buru-belarri parte hartu du hamabostaldia antolatzen.

ttipi-flash

Antzerki emanaldia

izanen da martxoaren 18an, larunbata, gaueko 8,30etan Kultur Etxean. Durangoko Eolo taldeak '¿Dónde estás Ulakune, dónde estás? antzeslana eskainiko du.

HBren batzarrak

Oldartzen ponentziari enmendakina aurkezteko batzarrak egingen ditu Berako HBk hurrengo ortziraletan, martxoaren 17, 24 eta 31an Espidobaitako sanean.

Eskerrak

Gure Txokoa dantza taldeak kaldereoren besta egin ahal izateko emandako laguntza eskertzen die Marilo, Errekalde ostatua, Mitxinborda, Javier Garmendia, Embalajes Martinez eta Berako Abesbatzari. Aldi berean, Iñude eta Artzaia egunean lagundu zuten Garatxekoborda, Maritx, Ansoñeajetxea eta Agerra mendi taldeei eskerrak ematen dizkiete.



ANSONEA
JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • **BERA**



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

BOTXO
ostatua

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA



J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta
barnizatzen dittut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

Lesaka

I. Bertso-paper lehiaketara lanak aurkezteko epea irekia


Sari banaketarekin batera Bertso Astea antolatu du Bortzirietako eskolak

AITOR AROZENA

Bortzirietako bertso eskolak antolatutako I. Bertso Paper lehiaketarako lanak aurkezteko epea apirilaren 15a bitarte zabalik izanen da. Lanak Arrano elkartean aurkeztu behar dira eta partehartzai-leak bi mailatan banatuko dira. 14 urte artekoak launa bertso egin beharko dituzte eta 14tik goitikoek guttienez sei bertso.

Bertso zaharren kantu lehiaketa ere burutuko da, bortziritar guzietan zabaldua. Guttienez sei bertso kantatu beharko dira eta parte hartzeko 627597 edo 637891 telefonotan eman beharko da izena.

Bertso idatzien sari banaketa eta bertso zaharren kantatzea apirilaren 29an egingen da udaletxeko pleno aretoan. Lehiaketa hauen inguruan bertso saioa eta bertso afaria egingen dira apirilaren 22 eta 29an.



Sokatira taldeak Nafarroako lehen txapela eskuratu du Leitzañ 680 kilotan
Argazkia: Joseba AZPIROZ

Zazpi milioi t'erdiko aurrekontua izanen du aurten Beti Gazte elkarteak

Beti Gazte elkarteak 7.557.000 pezeta-ko sarrera-irteerak izanen ditu aurten, batzar orokorrean onartutakoaren arabera. Iazko ekitaldia 770.991 pezeta-ko defizitarekin bukatu zuen.

Aurtengoan, ohiko kirol ekitaldiei (sei futbol talde, areto futbol-eko taldea, txirrindu-

laritza taldeak, herri kirolak eta xake taldea) saskibaloiko taldea gehituko zaio lehen aldiz. Kirol eta kultur arloko ekitaldi dextente antolatuko ditu Beti Gazte aurten ere.

Zuzendaritza batzordeari dagokionez, ez da berrikuntza haundirik izan. Lehendakartzan Jose Emilio

del Riok segituko du eta lehendakari-ordea Fidel Ordoki izanen da azken urtean bezala. Idazkari postuan Ana Irastorza sartuko da eta tesorero lanean, Maria Sunsundegi. Lehengo bokaliek batera, saskibaloikoa sortu da orain eta Bixente Igartzabalek bete-ko du bokal lana.

ttipi-flash

♦ **Aritxulegiko zerrakuraren** inguruko istiluak segitzen du. Norbaitek 1.800 metroan zerrakura moztu du oraingoan, alanbreari 600 ebakialdi emanez, eta zenbait pikete ateri dituzte. 675.000 pezeta-ko truke egin du zerrakura berria Jose Etxartek (metroko 375 pezeta).

♦ **Manipuladore karneta** ateratzeko txarlan izanen da martxoaren 21ean, goizeko 11etatik letara, Herriko Etxean.

♦ **Bidasaldeko Hamabostaldi Antimilitarista** Lesakan, martxoaren 18an (larunbata) arratsaldean kartel erakusketa Herriko Etxeko arkupean. Setan bideo pantaila erraldoian eta 9etan rock kontzertua Hondarribiko *Dut* eta Irungo *TAD* eta Komando *Tripontzi* taldeekin. Martxoaren 24an, ortzirala, Arranon bideoa eta hitzaldia Setan.

koxkonta



Sagardotegia zabalik

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9,

☎ 627584 - LESAKA

☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Farket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxo
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak

ETXALAR

Inaute polit eta jendetsuak

Gazte eta zahar, zahar eta haur, karrikara atera zen jendea

PELLO ETA ALBERTO

“Nere bizitzan ez dut inaute hauetan hainbertze jende ikusi”. Hori zioen 50 urteko batek. Aitzineko urteei begiratu, behinpehin, jendearen partehartzeak goiti egin du, eta aurten gehiena, dudarik gabe. Astelehenean 42 lagunek egin bazuten baserriz-baserriko ibilaldia, bi taldetan, asteartean karrrika jantzi zen soinu eta kolorez. Adin guzietako herritarrak, mozorrotuak eta mozorrotu gabeak. Eguzkiari ere eskertu behar zaio parte hartu nahi izana.

Dantza ikastaroa

30 gaztek eman du izena euskal dantzak



ikasteko. Kanpotik etorriko den irakaslea Nafarroako Gobernuak eta Udalak ordainduko dute, %60a batakoa eta %40a bertzeak.

Larraburua elkartearen batzarra

Urteko Batzar Nagusia burutu zuen otsailaren 26an. Oraingo ekintzak segitzeaz gain –gimnasia, sukaldaritza, joko txapelketak, podologoarena–, bi bidaia edo eskurtsione egitea era-



Argazkietan ageri denez, jende aunitzek parte hartu zuen aurtengo inauterietan

baki zuten. Ondotik Itziar gizarte laguntzailerak Bolondresgo edo

voluntariadoren berri eman zien bildutakoek: bakarrik egon eta

sentitzen direnei lagun egiteko aukera, alegia, borondatez egiten dena, nahi duenak eta kobratu gabe.

Andremaritarako musika taldeak...

hitzartu edo kontratatu dira dagoeneko. Bortz egunez izanen da musika, bezpera barne dela. Denetara ia-ia milioi bat pezeta ordainduko diren hiru talde etorriko dira: Agirren taldea 14-15ean, Luharts 16-17an eta Laiotz 18an.

IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESAKA

GRUPO  **ZURICH**

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

XATURETXEA


JATETXEA

Tfnoa: 63 70 27 **LESAKA**

GARBIKETA IDORREAN

LA IRUFESA



- Edredoiak
- Mantak eta alfonbrak
- Erropa orokorrean
- Komunio eta andregai erropak
- Larrua, antea eta ilezko larruetan espezialistak gara.

Etixerako zerbitzua
DOHAIN
BORTZIRIETAN

Beraketa 17 • ☎ (943) 631368
IRUN

 **HARITZPE**
JATETXEA

KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK
Sukaldaritzarik boberena xokorik politenean

GurutzeEtxea - Jauregieta auzoa - ☎ 635038

• **ETXALAR (NAFARROA)** •

Igantzi

Martxoaren 9an ospatu zuten Arkupekoek herriko besta

616 igantziar omen ginen urte hasieran

OSKAR TXOPERENA

Igantzioko Arkupeko partaideek martxoaren 9an ospatu zuten herriko besta. 60 lagun bildu ziren eguna elkarrekin pasatzera. Aunitz dira egun hau aprobetxatzen dutenak, kanpora egiten diren ateraldietan parte hartzeko ohitura haundirik ez dute eta. Urtero bezala, mezarekin eman zioten hasiera egunari. Arkupearen urteko ekitaldi eta asmoie errepasso ttiki bat eman ondotik Herriko Etxean bildu ziren bazkaltzera, Modestoren akordioarekin egindako dantzekin akautuz eguna.

Berriz ere gimnasia

Zenbait astez geldituta egon ondotik joan den astean hasi zen berriz ere gimnasia ikastaroa. Orain arte



Akautu dira aurtengoz ere Biltokiko mus eta partxis txapelketak. 50 lagun inguru izan ditugu lehian, azken hiru hilabete hauetan, eta jakina, denek ezin txapela jantzi. Aurten, Iñaki Goienetxe eta Javier Tabernak irabazi dute musean Anizeto Etxeberria eta Emilio Mendigutxia finalean garaituz. Partxisean, lau emakume finalean: M^a Luisa Etxeberria eta M^a Paz Petrikorena txapeldunak eta hurrengo urtean saiatu beharko duten Pili Iturbide eta M^a Asun Iribarren OSKAR

Mikel Mendizabalek ematen bazuen, hemendik aitzinera zaharrei ematen dien

Amaia Estonba berak ematen du, astelehetan 8,30etatik aitzinera.

Erortza

Erortza haundia agertu da Arantzara eta Igantziara doazen bi bidetartean, Irikobordako pare-parean, hain zuzen. Ez dute lan errexa izanen moldatzen, bi errepideak baitaude ukituta.

Errolda berria

Igantzioko biztanle goa ez da apenas mugitu udalak onartu berri duen errolda edo padroiak dioenez. 618 ginen joan den urtearen hasieran eta orain berri, 689

Anyo

Hemendik aitzinera azindak ezin izanen dira ibili Anyoko plantazio berrietan, mendizaina eta udalaren baimenik gabe behinpehin.



ZALAIN
JATEETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain Auzoa

☎ 63 09 67

BERA

BEREAU

JATEETXEA • HOTEL

Lesakako Bidegurutzean

Tfnoa: 637382 • 627509 - Faxa: 627647

LESAKA



ARRANO



OSTATUA

☎ 627597 • LESAKA

AYLA ARGAZKINTZA

- Estudioa
- Erreportaiak
- Ezkontzak
- Argazki materiala
- Fotokopiak
- Bideoa
- Markoak



Bixente Taberna
Legia karrika n^o 4
BERA ☎ 630597

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264



Eskola arteko topaketa Igantzin izanen da martxoaren 22an

'Zirko txikia' izeneko antzeslana ikusiko dute Igantzi, Arantza eta Etxalarko hurrek

GARBIÑE ETA ELIXABET

Igantzi, Etxalar eta Arantzako eskolen arteko topaketa martxoaren 22an Igantzin izanen da. Ikuskizun bezala, "Zirko txikia" izeneko antzerkia ikusiko dute.

Amaia Telletxea finalerdian

Alduden ospatutako lehenengo kanporaketan Amaia Telletxea laugarren geldituzen. Modu honetara, finalerako txartela lortu ez badu ere, Barañingo finalerdian aritzeko aukera izanen du. Orain arte epaimahaian sei epaile baziren ere, aurtengoan 8 egonen dira, horien artean Otsarrako Patxi Larretxea.



Igantzi eta Etxalarko hurrekin batera ongi pasatuko dute herriko neska-mutikoek

Bortzak Bat kooperatibak 25 urte

Bortzak Bat nekazarien kooperatibak bere hogeitabortzgarren urteurrena ospatuko du aurten. Horretarako zenbait ekitaldi antolatu ditu maiatzaren 14rako.

Egitarau guzira xeheki erraterik ez bada ere, bezperan Amaia Zubiriak kantaldia eskeiniko du eta meza, herri kirolak eta bazkaria izanen dira.

77,1 milioi gostako da ur-sarea berritzea

Herriko ur-hornidura eta saneamendua sareen berrikuntza lanak egitea onartu du Nafarroako Gobernuak, Hirurteko plan-

gintzaren barnean. Lanen aurrekontua 77,1 milioi pezetakoa da, horietatik 59,2 milioi plan horren kon-
tura. 2.981 metro tu-

beria sartuko da, 48 erregistro putzu egin eta 171 etxetara ailegatuko da sare berria. Lanak sei hilabeteko epean egingen dira.

Bertzalde, udala eta ur elkartearen arteko akordioaren arabera, 13 milioi pezeta ordainduko dira instalazio zaharraren truke



Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317


HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Érlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Lerboak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	


"Abujardaina" Mazizoa
Zabur antzekoa Tsapetua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



**ALBERGIA
JATETXEA**

© 634179
ARANTZA



**HERRIKO
OSTATUA**

Jatetxea

*Urte berriarekin batera
indarberrituak
Kuadrila, elkarte
etabarrentzat... menu
bereziak prestatzen dira*

© 635290
ETXALAR

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

LORA DENDA
TAURULA
Bitria LESAKA
627542
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

ttipi-ttapa
5.950 harpidedun
20.000 irakurle

Sunbilla

Hogeita hamabortz lagun bildu ziren basurde ehiztarien afarian

Bertzalde, Jubilatuen besta ere giro ederrean pasatu zuten

IXABEL ETA JOSUNE

Basurde ehiztariak aurtengo denboraldia-ri agurra emateko afaria egin zuten joan den larunbatean, martxoaren 4ean, eta hogeita hamabortz bat lagun elkartu ziren. Umore eta giro onean egon ziren eta afaltzeko noski, nahi haina basurde izan zuten.

Egia errateko aurtengo denboraldia arras ona izan dute, 31 basurde hil baitute herri-rik atera gabe. Dena den, argazkietan ikusi ahal dugunez, gizon-eko ehiztariak guttitz-ten doazela dirudi eta datorren denboraldirako emakumeek ere tartean sartu nahi dutela ematen du.



Basurde ehiztarien afarian bildu ziren hogeita hamabortz lagun-
gosea asetzeko basurde auzarkari izan zen plateretan

Giro ona Jubilatuen bestan

Joan den igandean herriko jubilatuek besta bat egin zuten herri-rian bertan. Eguna meza-ekin hasi zuten, ondotik mus txapelketa eta gero bazkaria Ulibeltzak elkar-
tean. Hirurogei lagun

bildu ziren eta bazkaldu ondoren dantzaldia izan zuten. Krixton giroa jarri zuten dantzaldian, gazte bizkorki hurbildu baitzen eta jubilatuek denei atera omen zieten dantza egitera.

705 biztanle

...zitu-
en Sunbillak urte hasieran, joan den urte hasieran baino bat guttiago, erroldaren arabera. Horietatik 361 gizon-ekoak dira eta 344 emakumeak. Joan den urtean zehar 19 alta eta 20 baja izan ziren herri-
an.

Idazkaritza

Miren Jorajuria herri-ko neska ikus ahal izanen dugu hilabete batez Herriko Etxeko idazkaritzan lanean. Miren administrari-
gisa praktikan ari den ikaslea da eta Herriko Etxean suertatu zaio.



AMEZTIA Jatetxea - Hostala

Especialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia

Plater Konbinatuak

Ameztia 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



TELLETXEA MOBLEAK

ZUREZKO PERFILAK

AZKENEAN, ATE-KORREDERAK
ZURE LOGELAREN ESTILOAREKIN
BATERATU AHAL IZANEN DITUZU

AKABERAK ZURE GUSTORA EGINAK
ZURAK BEREZKO DUEN DOTORETASUNA
ZURE LOGELAREN ESTILORA

EGOKITZEA ESKEINTZEN DIZUGU

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

**NOBEBADA
ESKLUSIBOA**

Doneztebe

Nafarroako haur kantari txapelketako kanporaketa bat martxoaren 25ean Bordatxon

Inguruko herrietako neska-mutikoak arituko dira

TXEMA ETA KARMELO

Aurten berriro ere ospatuko da Haur Kantarien txapelketa eta hiru kanporaketetatik bat, Donezteben izanen da martxoaren 25ean, larunbatean, arratsaldeko 4,30etan. Lehenbiziko kanporaketa Lekunberrin izan zen martxoaren 4an, bigarrena berriz Iruñean, martxoaren 11an eta finala ere Iruñean, Gaiarre antzokian ospatuko da apirilaren 9an, goizeko 11etatik aitzinera.

Bertze urtetan bezala, bakarka, bikoteka eta taldeka arituko dira kantari. Donezteben, denetara hogeiratan bat ordezkari izanen dira, eta oraingoz, izena emana dute Goizueta, Leitza, Berako ikastola eta Jesusen Bihotza eskolakoei, Lekarozko institutua, Doneztebeko eskola eta Tafallakoei. Beraz, ahots eta kantu politik aditzeko modua izanen dugu.



Kantu ederrez beteko da Bordatxo martxoaren 25ean

Argazkia: Artxiboa

Telletxea eta Arria V.ren arteko apostua

Aizkora apostu ederra ikusteko aukera izanen dugu apirilaren 2an, Doneztebeko frontoian.

Alde batetik Juan Telletxea aizkolaria do-

neztebarra arituko da eta bertetik Xabier Orbegozo, Arria V. bezala ezagunagoa dena eta Arria II. famatuaren hamazazpi urteko semea. Bakoitzak lau

Osasunbidea euskaldundu

Osasunbideko langile guziek, eremu euskaldunekoek behin behin, euskara ezagutzea beharrezkoa izatea onartu du Udalak. Malerrekako Euskara Mankomunitateak egindako eskaera honen aldeko sei boto izan ziren (EArenak 4 eta Donezteberen Alde 2) eta hiru abstentzio (Union Doneztebarrarenak hiruak). Hauetako batek, botuaren esplikazioan erran zuenez, "elebitasunaren alde nago, baina inoiz ez hizkuntza bat inposatzearen alde".

ttipi-flash

Multa zinearentzat

Leku-Eder zineak 60.000 pezetako isuna edo multa ordaindu beharko du, araudiak agintzen duen liburuak zinean bertan ez edukitzeagatik. Hemendik aitzinera pelikulak botako diren egunetan liburuak eramatea eta ondotik Herriko Etxera bueltatuko dira, udalak hartutako erabakiaren arabera.

1.282 biztanle zituen Doneztebek urte hasieran, udal erroldan agertzen denaren arabera. Kopuru horretatik, ia erdi eta erdi dira gizon-emakumeak (642 gizaseme eta 640 emakumezko, hain zuzen). Iaz baino 47 lagun gehiago gara herrian.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Dagoeneko ailegatu da UDABERRI eta UDAKO moda

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

Ezkurra

Jubilatuek giro ederrean ospatu zuten urteko besta

Hilabete honen hondar aldera hasiko dira bestalde, ur-sarea eta saneamendua berritzen

REYES GOÑI

Martxoaren 5ean ospatu zuten Ezkurra-ko jubilatuek urtero ospatzen duten elkartasun-pesta. Eguerdiko 12etan meza izan zuten, eta ondotik, 36 jubilatu Barranka jate-txean elkartu ziren bazkaltzera. Eguraldi euritsua izan bazen ere, bazkalondoa giro ederrean pasatu zuten.

Obrak hasteko puntuan

Martxoaren hondar aldera hastekoak dira ur-sarea, saneamendua eta karrikak konpontzeko obrak. Obra hauek Leitzako 'Azpiroz eta Saralegi' enpresak egiten ditu.



Otsailaren 12an Ezkurra-ko 15 gaztek sendotza egin zuten. Argazkian ageri dira besteak beste, Kristina Gastearena, Juan Karlos Mariezkurrena, Xabier Iparragirre, Julian Gogorza, Martin Telletxea, Jose Luis Mariezkurrena, Jabi Zabaleta, M^a Cruz Mariezkurrena, Victoriano Iparragirre, Lucio Baztarrika, Martin Gastearena, Edurne Vicente, Joseba Zestau, Carmen Gogorza eta David Telletxea

ZUBIETA

Emakumeen afarian 100 lagunetik gora

AINHOA MUTUBERRIA

Atso afariak berriro ere izugarriko arrakasta izan du. Dirudienez gero eta jende gehiago elkartuko dira. Aurtengoan 100 emakumetik gora bildu ziren. Joan den urtekoa lehenbiziko aldia izanik, sorpresa izan zen ikustea hainbeste emakume elkartuak.

Aurten jaiak hobekiago antolatua izan da, bai denboraz eta baita entretenimenduz ere. Kanpotarrak ere bazeuden.

Ea datorren urterako gauza berriak ere antolatzen diren. Aurten, afaldu eta segidan bi bertso saio izan ziren hiru neska gazteren eskutik. Gero, 'Beti Prest' taldearekin musika eta dibertsioak segitu zuen goizalderarte. Hauei buruz esan beharra dago, ikusi genituen azken aldian baino hobeki jotzen dutela.

Gazteak eta udala abuztuko jaiak antolatzen hasiak direnez, ea animatzen diren eta talde hau kontutan hartzen duten musika kontratatzerakoan.

Beintza

Gurutzakungo errota udalak erosiko du

Lagaundi aldean saldutako pagoek, bestalde, tira haundia izan zuten

BEINTZA-LABAIEN

Udalak hamar mila ptatan erosiko du Gurutzakungo errotaren parte edo akzio bakoitza, denetara 86 parte. Etorkizunean zaharretxea egiteko as-

moa dago bertan. Oraindik, dena den, ez omen dago argi noiz-ko eta zer modutan.

Bertzalde, Lagaundiko 1.638 bagoak hasiera batean 4,8 milioi ptatan atera baziren

ere, azkenean, Iruñeko 'Gil Anaiek' 7,7 milioitan erosi zituzten. Denetara 11 pliego sartu ziren eta subastara jende aunitz etorri zen.

Azkeneko udalbatzarrean, 1994ko kon-

tuak ere onartu ziren behin behinekoz. Iaz 18 milioi pasatuxe sartu ziren Herriko Etxean eta 20,2 milioi gastatu. Dena dela, 1993tik bazegoen 11,3 milioiko erremantea.



Esker Onak, Urtemugak, Eskelak

Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu, **ttipi-ttapak**

eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora

© 63 11 88

ITUREN

Aurtizko ostatuak maizter berriak ditu

IBAN ISASI

Orain arte Aurtizko Ostatu eramaten zuten donostiarrek utzi egin dute Donezteben bertze ostatu bat idekitzeko. Haien lekua Oiartzungo familia batek hartu du.

Disco-bar

Bertzalde, Iturengo Pionean dagoen Mendaur ostatu aste batzuz itxia egon ondok, itxuraberritua idekitzekotan zeuden joan den larunbatean, martxoak 11. Orain, itxuraz ez zik giroz ere aldatua ikusiko dugu. Nagusiek jakitera eman dutenez, Disco-Bar berrian *'klase gutitako musikak eta bestak tokia izanen dute'*.

ttipi-flash

❖ **209 biztanle Urrotzen**

Urrotzek 209 biztanlerekin hasi du urtea, joan den urte hasieran baino bi gehiago. Horietatik 116 gizonetzkoak dira eta 93 emakumezkoak.

❖ **305 biztanle**

zeuden urtarilaren Iean Beintza-labaienen, iaz baino 6 guttiago. Hauetatik 174 gizonetzkoak eta 131 emakumezkoak.

❖ **Langarra**

Euskara taldeak sozioak lortzeko kanpainari ekinen dio herri guzietan.

Urrozko udalak 60 milioi pezetako aurrekontua izanen du

Urrotzko udalak 60,3 milioi pezetako behin behineko aurrekontua izanen du aurtentzen, azken batzarrean onartutakoaren arabera. 30 milioi inguru

pistak moldatzetik akitzeko erabiliko da, ormigoiztatze lanean batez ere. Lan hauek iazko aurrekontuan sartuak bazen ere, aurtentzen akituko dira.

Hirurteko Planean, beraz, ez dago deus aurtentzen egiteko.

Joan den urteko kontuei dagokienez, 4 milioi t'erdiko defizitarekin itxi ziren

(22,2 milioi sarrertan eta 26,7 irteertan). Halere, 1993an 19,6 milioiko superabita bukatu zenez, 15 milioiko dirutza gelditzen da oraindik.

**P.A.C.
95**

ESKA EZAZU "AZALERAK 1995" LAGUNTZA CAJA RURAL DE NAVARRAN



"Azalera 1995" laguntza zerbitzuari eskusiban emana dagoen espezialista taldeari eta automatizatutako sistemari esker, Caja Rural de Navarra zure eskaera aurkezteko modurik bizkor eta eraginkorra eskeintzen dizu.

Etor zaitez Caja Rural de Navarra eta laguntzarik onena aurkituko duzu.

"Azalera 1995": nekazal esplotazio hauen jabeen zuzendutako laguntzak; zerealen laborantza, oleaginosak, proteaginosak, gari gogorrendako suplementuak, lekadun aleak, bazkalekuak, haragitarako betabereak

(abeltzain dentsitate faktorearen kalkulua). Guzti hauek eskaera bakar bat aurkeztu behar dute 1995erako Lurgorri eta 1995erako uztarako erentza Plangintza'rekin lagunduta.



CAJA RURAL DE NAVARRA

**SISTEMA
AUTOMATIZATUA
DUEN ESKAERA
ZERBITZU
ESKLUSIBOA**

Goizueta

'Artea eta Kultura' kanpainaren egitaraua prest

Bost emanaldi ezberdin burutuko dira urtean barrena

ESTEBAN AROZENA

Kontaktoren bat edo beste oraindik egin ga-be izan arren, eta horren ondorioz data edo fetxeei dagokieneko al-daketaren bat eman baldin badaiteke ere, Nafarroako Gobernuak bultzatzen duen 1995eko 'Arte eta Kultura' kanpainaren egitaraua egina dago, Udalak herriko erakunde batzuekin izandako bileren ondotik.

Prestatutako ekin-tzak kronologikoki aipatuz esan, maiatzaren 13an Balerdi-Balerdi rock-folk taldea izanen dugula gure artean; uztailaren 26an aldiz, 'Iruñea Pequeño



Donostiako Aitor Ikastolako ikasle eta gurasoek iñauterietako desfilea egin zuten martxoaren 4an

Teatro' kaleko antzerki taldeak eskeiniko du bere emanaldia. Festatarako giroa berotu asmoz, azken hilabete hauetan modan dagoen rockero gaztearen

kontzertua abuztuaren 12an; Bittor Aiape. Udazkenera hurbilduz, irailaren 16an, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Estitxú Arozena eta Maialen Lujanbio ber-

tsolari gazteen saioa; eta kanpainaren barreneko bosgarren eta azken ekintza zaharren egunean burutuko den Ordiziako dantza taldearen emanaldia iza-

nen da.

Guzti honek 640.000 pezetako aurrekontua omen du, 300.000 pezeta inguru Nafarroako Gobernutik jartzea espero delarik. Gainerakoa Udalak ordaindu beharko du.

Paleta txapelketa

Gazte asanbladak antolatzen duen Paleta Txapelketa mistoaren bigarren ediziorako izena emateko epea martxoaren 19an itxiko da. Maritxu tabernan ireki da horretarako zerrenda, eta bertan apuntatzerakoan 1.500 pta. ordaindu beharko du neska-mutil bikote bakoitzak.

Areso

Emakumeen Eguna ospatu zen martxoaren 8an

Sokatira taldea ederki aritu zen Leitzako finalean

JUANA MARI SAIZAR

Emakumeen eguna ospatu zen berriro martxoaren 8an. Hamasei lagun elkartziren eta 'Los amantes' filmea ikusi zuten. Denen artean azterketa txiki bat egin ondoren, zein motako emakumeak ziren, bere desberdintasunak eta gauza onak eta txarrak ikasi zituzten. Gero afari batekin bukatu zuten, goizeko 2ak aldera.



Sokatira taldeak bigarren postua lortu zuen Nafarroako txapelketan 680 kilogramo. Tiraldi gogorrak izan zituzten lesakarren kontra.

ttipi-flash

Ikasteko teknikak

Ikasteko tekniken ikastaroa bukatu da eta oso kontentu ibili dira 16 lagunak. Esperientzi oso polita izan omen da eta hurrengo urterako guraso elkarteak beste ekitaldi batzuk prestatuko ditu.

Izargain taldeak

ikastaro batzuk prestatu ditu. Erlajazioa, gorputz espresioa eta masaiak izanen dute ikasgai lau asteburuetan. Hasiera martxoaren 18 eta 19an.

Leitza

Herriko historia ezagutzeko aukera hurrengo hiru asteetan

Emakumeek afari batekin ospatu zuten beraien eguna martxoaren 8an

JOSEBA AZPIROZ

- Ba al dakizu Leitzako Foruak emakumezkoetaz dioena?

- Ezagunak al dituzu Gorritiko Joanesen komeriak?


- Plazaola: mehatgetiarako sortua, pasajeroentzat egokitua, baina gauzarik inportanteena...

Guzti hau eta guzua gehiago ikasi nahi izanez gero, martxoaren 23 eta 30ean eta apirilaren 6 eta 7an, 7,30etatik 9,30ak bitarte, izango den historia ikastaroan parte har dezakezu. Hauek izango dira gaiak egunez egun: lehenbiziko egunen, 'Azalpen orokorra: Gure herria historian sartzean'; Bigarrenean, 'Erdi Aroa - Nafarroako Erresuma - Konkistaren garaia'; hirugarrenean 'Aro garaikidea' eta laugarren egunean mahai ingurua, herriko pasadizoetaz. Ikastaroa Patxi Larrion eta Josu



Martxoaren 8an, Leitzako emakumeek afaria egin zuten beraien eguna ospatuz. Aurreko egunetan ere zenbait ekitaldi burutu zituzten. Eskuineko argazkian ageri den Aurtxikeneko Juana Mari Aldunzinen zerrama honek 22 zerrikume erditu zituen. Horietatik 18 bizi dira

Argazkiak: JOSEBA



Erasoen kontrako mozioa

HBk emakumeek jasandako eraso eta bortxakerien kontrako mozio bat aurkeztu zuen. Sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak egitea, eraso jasandakoen emakumeei laguntzea, akusazio partikular bezala agertu eta alor guztietako gastuak bereganatzea proposatzen zen

HBkoak eta Beatriz Zabaleta alde agertu ziren. Besteak mozioa onartu zuten, gizonak jasotako erasoen aurrean jarrera bera hartzeko konpromezuarekin.

Txuekak emango dute eta aipatutako garaietan gertatutakoen berri orokorraz gain, Leitzan izandu zuten eraginaz ere mintzatuko dira.

Izena Euskara zerbitzuan eta Euskaltzarian eman dezakezu, martxoaren 21a baino lehen. Matrikula saria 500 pezetakoa izango da.

Kontzertua

Martxoaren 25ean, gaueko 11etan pilota-

Ordoñezeren hilketaren salaketa

Agrupación Independiente Leitzarra taldeko zinegotziek, ETArekin zuzen direla eta, Euskal Herriak bizi duen egoera eta bereziki Gregorio Ordoñezeren hilketa salatzen ari dira. Eusko Alkartasunako zinegotziek

bere adostasuna adierazi eta mozioaren alde botoa eman zuten. Herri Batasunakoak berriz, mozio horren bidez deus gutxi aurreratzen dela eta irtenbide negoziatu bat bilatzen saiatu beharra dagoela esan ondoren, abstentzioa aukeratu zuten.

lekuean, Lin Ton Taun, Etsaiak eta Exkixu ari-

tuko dira, Torreak elkartea antolatuta.

ttipi-ttapa
urte oso batez
(24 aldizkari)
Ameriketara
bidaltzeak
8.000 Pta. balio du.

948-631188

ttipi-ttapa

5.900 harpidedun
20.000 irakurle

Zure klienteek
irakurtzen dute
Zure publizitatea
ttipi-ttapa

Baztan

Iñauteriak bukatu ziren aurtengoz

Orokorrean giro ona nagusitu da, Arizkunen arazoren bat izan bazen ere

JOSEBA IGARABIDE

Herri guzietan umore onez joan zitzaizkigun iñauteriak. Arizkunen, halere, arazotxo bat izan zen. Argazkilari batek karrorza bateko eltzean eskua erre zuen eta denuntzia sartu zuen. Bertzalde, ikastolaren 25. urteurrena ospatuz ibilaldi berexia egin zen, ia 300 haurrekin. Gero 120 litro txokolate banatu ziren. Hartzak Arizkunen, Damak Erratzun eta egunotako pertsonaiak datorren urtera arte gorde dira.

Ur zikinak

Oronoz-Mugaireko ur zikinaren arazoa erdi konpondu dutela erran daiteke. Orain arraindegitik ura bonbeatzen dute, baina tuberia zikina zegoela dirudi.

Emakumeen Eguna...

dela eta hainbatekitaldi. Lekarozen 55 emakumek afaria izan zuten larunbatean. Elizondoko liburategian Egizan emakume elkarteak antolatuta, emakumeek idatzitako liburuak ikusgai egon ziren martxoaren 8an. Ondotik konzen-



Bukatu dira aurtengoz iñauteriak. Datorren urtera arte erran beharko diogu Arizkungo hartzei eta iñauterietako bertze pertsonaiei.
Arg.: ARTXIBOA

Aritzakungo bizilagunek Jaizkibeleetik hartuko dute telebista seinalea

Aritzakun inguruko hamabortz baserri-tan ezin dute aspaldiko urtetan Gorramendiko errepetidoretik bidaltzen den telebista seinalea hartu. Tekniko batek, arizakundarren eskariz egindako azterketaren

arabera, leku batean Jaizkibeleko seinalea hartzen da. Honela, seinalea jasotzeko antena bat paratuz gero, baserri guzietara ailegatzeko modua izanen zen, antena transmisora tikiagoen bidez. Lan guzi hauek egi-

teko aurrekontua aurkeztu dute Aritzakungo bizilagunek Baztango udalean dirulaguntza eskatu asmoz. Udalak bere aldetik, dirulaguntza eskatutako Nafarroako Gobernuko Komunikabide sailari.

trazio-manifestazioa egin zen.

Hauteskundetarako prestatzen

Talde politikoak hauteskunderako zerrendak prestatzen ari dira. EAK Francisco Oiartzabal aurkeztuko

du berriz zerrendaburu. HBtik Martin Garde ez omen da izanen zerrendaburu eta UBko Valenciak ez omen du segitzeko intentziorik.

Atxiloketen kontra

Sotero Etxandi arraioztarra eta Eli-

zondon bizi diren Juan Ramon Urtizbera eta M^a Carmen Erausoren atxiloketen kontra hainbat mobilizazio burutu dira. Sotero gartzelan sartu dute, Garzonen aitzinean deklaratu arte.

ttipi-flash

Argazki erakusketa

Arizkunenea Kultur Etxean Carlos Canovasen argazki erakusketa zabalik dago martxoan zehar.

Euskara teknikariaren lanposturako azterketa astearte honetan egin da.

Hasiera batean, orain dela bi aste egin behar zen, baina elurra- ren ondorioz atzeratu egin da.

Greba

Lekarozko institutu eta Elizondoko Lanbide eskoletako ikasleek hiru orduko greba egin zuten Baztanen burututako azken detentzioak salatuz.

Gazte ibilaldia

Baztango mendigoizaleek antolatuta, Gorramendira gazte ibilaldia egin zuten joan den igandean.

Babes ofizialeko etxebizitzak

egin behar dira Lekaroz eta Almandozen. Eskararak martxoaren 8tik 24ra egiten ahal dira Baztango udal- txean.

Patxi Peña

suhiltzaile gartzaindarra Ruandara joan da hilabete baterako, ur-horniketa lanean aritzeko.

SAS KAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de
REPIJOL
AUTANO

**Era guzietako instalazioak:
Etxekoak, Industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

Joxe Mari Ballarena intsumitua balaz zauritu zuten atxilotzerakoan

Udalak Goardia Zibilaren aktuzioa salatu zuen

Joxe Mari Ballarena, 22 urteko intsumitu elizondoarra balaz zauritua izan zen otsailaren azken egunean, Goardia Zibila atxilotzera joan zitzaionean. Bertsio ofizialaren arabera, Joxe Mari leihotik salto egin zuen eta eskapo hasi zen. Guardiazibilek Asko zubian harrapatu zuten eta katxeatzen ari zirela, gazteak egindako mugimendu baten ondorioz tiroak eskapo egin omen zien, beti ere bertsio horren arabera.

"NEURRIZ KANPOKO AKTUAZIOA"

Gertakari honek hainbat erreakzio sortu zituen, bai Baztanen, baita gure mugetaz kanpo. Herrian, bertsio ofizialaren sinisgarritasuna zalan-tzan jarri zuen jende aunitzek, Joxe Mari hirugarren pisu batean bizi dela kontuan



Joxe Mari Ballarena, 22 urteko intsumitu elizondoarra

hartuz, zaila baita bertatik salto egitea. Edozein moduz, jende guztia bat zetorren Goardia Zibilaren aktuzioa neurritz kanpokoia izan zela erra-

terakoan eta "urte osoan beraien esku dagoen gazte bat atxilotzeko armak erabiltzea" kritikatu zuten. Zugarramurdi eta Baztan-Bidasoako talde antimilitaristak eta Baztandarren Biltzarren Gazte sailak ere idatzi bana plazaratu dute gertaera salatuz eta Joxe Marirekiko elkartasuna adieraziz. Gure mugetatik kanpo, Belloch estatuko Barne ministro berari ere iritsi zitzaion gertaerari buruzko galdera bat.

Udalak bere aldetik, intsumisoarekiko elkartasuna adierazi zuen, UBko zinegotzirik gabe egin zen batzarrean. Gainerako zinegotziek gertakari buruzko ikerketa egitea eskatu diote agintariei, eta atxilotzerakoan armak erabiltzerakoan Goardia Zibilek "kalte moldaezinak" sortzen ahal zituztela salatu zuten.

ttipi-flash

- ❖ **Baztango ikastolaren**
25. urteurrena dela eta Basaburua eta Arraiozko herri kirol taldeek parte hartu zuten joan den igandean Elizondoko herri kirol jaialdian.
- ❖ **Almandozen**
autobus bat antolatu da, nahi duten herritarrentzat, martxoaren 25ean Astigarragako sagardotegi batera joateko.
- ❖ **Anizen**
jokatzen ari den mus txapelketa igandean bukatuko da. Ondotik bazkaria egitea pentsatuta dute.
- ❖ **Ur bideratzea**
Elizondoko Anzaborda eta Etxaide auzoetako euri urak Baztan errekerak bideratzeko proiektua egingen da. Bertalde, Nas errekatik hartutako ura Arizkungo Bozate auzoa hornitzeko erabiliko da.
- ❖ **Amaiurko monumentoa**
berritzeko 341.040 pezetako dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak.



EHNE sindikatuaren ihardunaldiak Bertzen

Nekazal turismoaren gaia, abeltzain eta nekazarien ikuspegitik jorratzeko intziazioekin ihardunaldiak antolatu ditu Nafarroako EHNEk martxoaren 23 eta 24rako Bertziko Partzuergoan.

Lehendabiziko eguna EHNE sindikatuaren afiliatuei zuzenduko zaie. 24an berriz, atekak zabalik izanen dituzte parte hartu nahi duen edonorrendako. Aurkezpena Mikel Petrirenak egingen du eta goiz eta arratsaldez mahainguru ezberdinak burutuko dira, nekazal dibertsifikazioa eta landaturismoa gaitzat hartuz. Tartean prentsaurrekoa eskeinitako dute. Ihardunaldien agurra Perez Lapazaran eta Petrirenak egingen dute.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDABERRIKO TELA eta ARROPAK:

Galtzak, konjuntuak, trajeak,
puntu-zko jertseak, kamisetak,
txalekoak, soinak, blusak...

KONPLEMENTOAK:

Boltsak, zinturoiak, bisuteria, paitñueloak...



ZURE
ARGAZKIAK
ORDU BATEAN
EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIK

IA 100 URTE KALITATEA ETA
PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25



SARA

Ihauteriak giro onean iragan ziren

Aurtengo berrikuntza Sorgin dantzaren plazaratzea izan da

MIXEL ETA JACQUELINE

Garizuman sartu aintzin gazteek ihauteriak ospatu dituzte otsailaren 25 eta 26an. Zorigaitzez eguraldi txarrarengatik zaldunak ezin izan dira atera, baina berrogoi eta hamar bat gazte ibili ziren auzoz auzo eta etxez etxe larunbata osoan, Urruñako txaranga, xirulari eta gaiteroak lagun. Igande goizean, meza nagusitik landa nahiko jende bildu zen plazan eta eguerdi irian Ospitale ohiaren aldetik ihauterietako partaideek beren ibilaldia hasten zuten Artza eta hunen zaintzailearen inguruan. Euria gelditu zen eta ikusi ginituen dantza eta jauzi ugari.



Neska-mutil gazteak sorgin dantzan

J.P. Lemoine

SORGIN DANTZA

Aurtengo berritasuna "Sorgin dantzaren" plazaratzea izan da. Dantza hau, jakin izan dugunez, Tolosatik dator, nahiz eta herri askotan hedatua izan. Saratarrek beren bere-

zitasuna nahi izan diote eman, horretarako neskakak mutilez jantzirik eta alderantziz.

Bururatzeko Zan Pantzar auzitaratu zuten eta plazaren erdian erre. Denek Portua jattetxean bazkaldu zu-

ten eta ihauterien agurra izanik ere, umore eta giro polita izan omen zuten bertan bildu zirenek. Urtetik urtera Sarako ihauteriek arrakasta handia bil-tzen ari dute. Jarrai bide hortatik.

Harategian jabe berria


Oraitik aintzina Ramon San Sebastian da errebote berriaren sahetsean dagoen harategiaren nagusi berria. Sortzez gipuzkoarra da, Tolosa ingurukoa, baina luzaz Donibane Lohitzunen aritua da eta jakin dugu harakin trebatua dela. Gure aldetik lanaren ukaita opatzen diogu eta keinu berezi bat egingen dugu gure herri-tarrerri buruz jin berria den ofiziale hau gustura sendi dadin gure artean.

Ikastolaren bilkura

Olhain ikastolak bere bilkura nagusia egingen du martxoaren 24an, Gazteen Etxean, arratseko 9etan. Ikastolaren garapenerako egun garrantzitsua delakoan partehartzea handia izatea nahi dute Olhain ikastolako arduradunek.

K

KIWI BAZTAN



Frutondoak eta Landare Ornamentalen Zuzeneko Salmenta

MINDEGIA eta BULEGOAK

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01
Faxa: (948) 581101




ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnua.: 59 91 31 - URDAZUBI

ARLA
ARDOTEGIA

Ardoak • likorrak • freskagarriak

Santiago 56, Tfnua: 45 32 66 • ELIZONDO



ttipi-ttapa

Ameriketara

Zure senide edo lagun bat Ameriketara bizi eta aldizkaria jasotzea nahi baduzu, deitu eta informazioa emanen dizugu.

☎ 63 11 88

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortzirala Betatik aitzimerat Larunbata eta besta egunetan zabalik

☎ 45 21 21 • LEKAROTZ

ERRATZU
OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

☎ 453168 - ERRATZU

Urdazubi

26 milioi t'erdi gostako da Dantxarineako zubia zabaltzea

Guztira 12 metro t'erdiko zabalera izanen du eta oinezkoentzat ere bi metroko bi espaloi eginen dira


ALIZIA OLAIZOLA

Dantxarineako zubia zabaltzeko 26,5 milioi pezetako aurrekontua onartu du Jose Ignacio Lopez Borderias, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetarako kontseilariak.

12,5 METROKO ZABALERA

Gaur egun, zubiak 7,85 metroko zabalera du eta autoendako errepidea zazpi metrokoa da (3 metro t'erdiko karrilak).

Proiektu berriaren arabera, zubi berria



Oinezkoak ere lasaiago ibiliko dira zubian barna

eginen da, aitzinekoak baino zabalera ge-

hiago izanen duena. Modu honetara, auto-

endako zabalera gehiago izateaz gain (karril

bakoitzeko 4,25 metro), oinez doazentzat ere bina metroko zabalera izanen duten bi azera edo espaloi eginen dira. Guztira 12 metro t'erdiko zabalera emanen zaio zubia-ri eta beharrezan suertatuz gero, hiru ibilgailu batera gurutzatu ahal izanen dira.

Nafarroako Gobernu eta Frantziako agintarien artean sinatutako akordio baten arabera berrituko da Urdazubiko zubia. Frantziarrek berriz, gisako zubia moldatuko dute Luzaide inguruan.

Zugarramurdi

Umore ederrean pasatu dira aurten ere Iñauteriak

Jatetxearen falta, Herriko Etxea etsia baitzen, Txomin eta Palaziokoeri esker moldatu zen

KORO ETA MARGARI

Eguraldi aldetik ke- xa haundirik gabe, bertze urtetan bezala umore ederrean pasatu dira Iñauteriak. Marziel eta Panpi ziren musikariak eta hauen soinuekin, eta gainerakoen kantu, dantza eta zalaparta- rekin bazter guztieta- ra hedatu zen egun ero hauen giroa. Disfraz edo mozorroen aldetik ez zuen nihorrek Rio de Janeiron saririk irabaziko, bainan egune- roko itxura aldatzea zen asmoa eta hori bai ederki aski bete zela.



Eguraldi onaren eraginez, erleak eta euliak izan genituen inauterietan, palmera artean gainera

OTORDUAK

Aurtengo arazoa, otorduetarako jatetxea lortzea zen, Herriko Etxea etsia zutelakoz. Bainan azkenean konpondu zen afera, ezin hobe gainera. Hau kon- ponan hartuz, Iñauterie- tako partaideek TTPI- TTAPATIK beren eske- rrak bidali nahi dioz- kate alde batetik Txo- mineri, bere medioz soziedadean afaltzea posible izan zelakoz eta baita Palaziokoeri ere, beren intentzio eta lan hoberenak eman zi- tuztelakoz bertzeek on- gi pasatzen.

EZKONTZAK

JAIOTZAK

HERIOTZAK

Elena Ibarluzea Elizalde, Lesakakoa, otsailaren 24an.

Gaizka Leiza Aldunzin, Leitzakoa, otsailaren 23an.

Joana Etchegaray, Sarakoa, otsailaren 23an.

Jon Arratxea Barrenetxe, Narbar-tekoa, otsailaren 18an.

Uxue Mutuberria Alkorta, Goizue-takoa, otsailaren 27an.

Hegoa Telletxea Andueza, Berakoa, martxoaren 2an.

Izaro Iribarren Indaburu, Etxalar-koa, otsailaren 26an.

Josefa Ibarra Hualde, Legasakoa, otsailaren 15ean, 93 urte.

Fco. Baleztena Ezkurra, Leitzakoa, martxoaren 3an, 79 urte.

Maria Mindegia Larraburu, Dona-mariakoa, otsailaren 24an, 85 urte.

Pilar Perurena Apezetxea, Goi-zuetakoa, otsailaren 26an, 73 urte.

Estefania Juanena Goñi, Dona-mariakoa, otsailaren 27an, 69 urte.

M^a Josefa Goia Retegi, Berakoa, otsailaren 21ean, 70 urte.

Valentin Irazoki Agirre, Berakoa, otsailaren 28an, 84 urte.

M^a Paz Mikelarena Aioroa, Irurita-koa, otsailaren 20an, 88 urte.

Laureana Indurain Sagardoi, Eli-zondon, otsailaren 22an, 81 urte.

Telesforo Irigoien Irigoien, Ariz-kungoa, otsailaren 24an, 91 urte.

Elena Zudaire Loizuna, Elizondon, otsailaren 26an, 91 urte.

Dolores Bergara Zubikoa, Aran-tzakoa, otsailaren 24an, 97 urte.

KIROMASAIA

Iñaki Razquin

KIROL MASAIA

- Besoa - Belauna
- Ukalondoa - Zurmioa

GIHAR LASAITZEA

BIZI MASAIA

- Zerbikalak - Kaderak
- Lunbarrak - Ziatika eta sasi-ziatika

ERLAJAZIO MASAIA

Gihar kontrakzioak, lanean postura txarrean egoteagatik...

TERAPEUTA DIPLOMATUA

Kontsulta leku zentrikoan
(Urdanibia Plaza ondoan)

Larretxipi 17 Behea - IRUN Tel: 943-63 34 81

Ordutegia: Astelehenetik ortziralerara 16.00tik 20.00ra
Larunbatetan 10.00tik 14.00ra R.P.S.: 199/94

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bitzitza aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tinoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak.....	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe.....	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza.....	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua.....	246750
Virgen del Camino	
Erresidentzia.....	109400
Gurutze Gorria.....	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea.....	614600
Gipuzkoako ospitalea	460299
Erresidentzia.....	453800
Anbulatorioak	
Irun.....	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz.....	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Doneztebe.....	637404
Elizondo.....	580924
Lesaka.....	637404
Suhiltzaileak	
Oronoz-Mugairi.....	592255
Garraioak	
Bidasotarra.....	631150
Baztanesa.....	580129
Leitzaran.....	515018
Aberiak:	
Iberduero.....	450335 / 450336

Goardia Zibilaren torturak salatu dituzte Mikel Legarra eta Sotero Etxandik

Sotero salatu zuenez, bertze tortura eta tratu txarren artean makila bat sartu zioten ipurtzulotik

Otsailaren 26tik 27-rako gauean, Goardia Zibilak Arraiozko Xotero Etxandi, Elizondon bizi diren Juan Ramon Urtizbera eta M^a Carmen Erauso bikotea, eta urtetan Bortzirietan bizitua den Mikel Legarra atxilotu zituen. Handik egun guttitara, azkenean hiruak libre gelditu ziren inolako kargurik gabe.

Etxandiren kasuan, bere kontrako kargu guztiak ukatu zituen Bueren epailearen aitzinean. Epaileak halerre, momentuz kartzelaratzeko agindu zuen.

Sotero torturak salatu zituen epailearen aitzinean, 'boltsa' jarri ziotela ia ito arte eta ipurtzulotik makila bat sartu ziotela. Goardia Zibilek presio psikolo-

giko gisa, bere semea atzeman zutela eta libre ikusi nahi baldin bazuen bere kontrako kargu guztiak aitortzeko erraten zioten.

Elkarriko liberatua den Mikel Legarra, bertzalde, Garzonen aitzinean deklaratu ondoren libre utzi zuten. Prentsaurrekoan salatu zuenez, Iruñean kolpatu eta iraindu zuten.

Buruan boltsa jarri zioten, bainan gogorrena sufrututako presio psikologikoa izan omen zen. Madrilen zegoela, besteen sufrimendu oihuak aditu zituen eta gelditu gabe Elkarriri buruz galdetzen zioten.

Gertatutako Garzonen aitzineran salatu zuen eta gainera, salaketa bat jarri du Iruñeko Auzitegian.

Udal eta Elkarte Asoziatuek diru gehiago jarri beharko dute Kontsortzioa finantziatzeko

Bertze gauzen artean, halaxe dio ACISek kontsortzioaren egoeraz prestatu duen informean

1994an Bertziko Partzuergo Turistikoak kasik 60 milioi Ptako aurrekontua izan zuen. Kopuru hori bi zatitan banatua zegoen; batek 19.150.000 Ptako. Aurrekontu Arrunta (gestioa, soldatak, funtzionamendua... ordaintzeko) eta bertzetik 40 milioi Aurrekontu Extraordinarioa (gidak, katalogoak, ikastaroak... ordain-

tzeko). Guzi horren finantziarioari dagokionez, zatirik haundiena Nafarroako Gobernuak ordaindu zuen (60 milioitik 45 milioi Pta.).

AURTEN DIRUAK MURRIZTUKO

Iaz Bertziko zen Nafarroako Kontsortzio Turistiko bakarra, bainan bitarte honetan han eta hemen Kontsortzio gehiago sortu dira. Hortaz, aurten Nafarroako Gobernutik ainsa diru gutiago eskuratzeara espero da. ACISek bere informean dioenez, aurten deinetara 10 milioi inguru hartuko dira, eta horiek, Udal eta Elkarte Asoziatuek bertze hainbertze jartzeko baldintzarekin.

690.000 Pta. HILABETERO

Bertzalde, Javier Rozas Kontsortzioko

gerenteari 690.000 Pta. pagatzen zaio hilabetero (dietak aparte) bere denboraren zati bat Bertziko Partzuergo Turistikoari dedikatzenko.

1994an Rozasek eramandako gestioak, halere, Partzuergo osatzen duten zenbait Udal eta Elkarteren haserre sortu du, eta horren ondorioz, dimisioa aurkeztua du.

Giltzaren bila

Lehiaketa

Izen-Deiturak.....
 Helbidea.....
 Herria..... Tfnoa:.....
 Giltza..... orrialdean dago. Zebazki, zein tokitan?.....

Kupoi hau moztu eta Bera, Doneztebe, Leitza edo Lesakako EUSKADIKO KUTXAREN sukurtsaletan utzi lehenbailehen.

LEHIAKETA HONEN OINARRIAK 151. ALEKO AZKEN ORRIALDEAN AGERTU ZIREN

Aldi honetako jabetxeak Almandozko BEOLA eta BERA KO ANSONEA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Hurrengo lau hilabeteotan, otsaila, martxoa, apirila eta maiatzean, bi lagunendako **8 ordu** (15.000 pezetako afari edo bazkaria) **zozketatuko dira** EUSKADIKO KUTXAREN **giltza aurkitu dutenen artean**.

Giltza aldizkari honetako edozein tokitan egoten ahal da. Orrialde honetako publikizadakoak ez du balio. **Bilatu!** eta aukitu duzunean, **bete** ondoko **kupoi** edo **deitu beheko telefonora**.

TELEFONOZ DEITZEKO ORDUTEGIA:

Asteleheneetik ostiralera goizeko 8etatik gaueko 10etara
 Larunbatetan goizeko 8etatik arratsaldeko 3etara



901 - 333444

Anima zaituz parte hartzera!!

DATUAK

- ❖ Antton Maiz duela 43 urte sortu zen Arantzako Petrisenekoborda baserrian eta gaur egun bertan bizi da. Ezkondua eta bi alaben aita da.
- ❖ 1975ean debutatu zuen profesionaletan Tolosako bestetan. Otxoàrekin batera 22-20 irabazi zien Arozena eta Riojari.
- ❖ Eskuz binakako borts txapel irabazi ditu —errekorra bere eskuetan dago— eta Bigarren mailakoa irabazi zuen *mano-mano*.
- ❖ Martxoaren 3an omenaldia eskeini zion 'Asegarce'k Bilbon, "Eskerrik Asko Antton" izenburupean.

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

Antton MAIZ: «Hogei urtetan satisfakzio haundiak eman dizkit pilotak»

HOGEI URTEOTAN, ZER ESKEINI DIOZU PILOTARI, ETA ZURI PILOTAK ZER EMAN DIZU?

Hogei urteotan partidu aunitz jokatu duen pilotaria izan naiz. Zenbait urtetan ehun partidutan ibiltzen nintzen. Zazpi hilabetez lesionatua egon nintzen, gainerakoan partidu aunitz jokatu dut. Pilotak niri satisfakzio haundiak eman ditit, lagun aunitz egin ditut, eta nik uste, dena positiboa izan da.


HORIEN ARTEAN, OROITZAPENIK ONENA ZEIN DA?

Bigarren mailako txapela irabaztea, nere burua Primeran zegoela ikusi bainuen. Parejaka ere, lehenbiziko eta azkeneko txapelak, duela bi urte, ilusio haundia egin didate. Hemendik aitzinera denetik oroitzapenik onena, omenaldia izanen dut. Ez nuen horrelakorik espero eta hagitz emozionantea izan da; frontoia betea, jendea txaloka...

ETA TXARRENA?

Alde batetik lesioa, zazpi hilabetez geldirik egon bainintzen eta orduan jokatzeko ez bazenuen ez zen sosik.

❖ *«Ez da errexa izanen norbaitek borts txapela irabaztea, baina bada hiru txapelekin dagoen jendea. Norbera ongi egonagatik, lagunak ere ongi egon behar du, bertzela ez da deus egiterik. Suerte hori behar da.»*



Gero, final bat 22-21 galdu nuen eta hori sentitzen da, tantu batengatik txapela ez lortzea.

PILOTARI PROFESIONAL BEZALA ERRETIRATUTA, ERABAT UTZI BEHAR DUZU PILOTA?

Txuriz jantzitako pilota utzi dut, baina eskuz ez bada paletan se-

gituko dut herrian. Gero badira hemen gazte batzuk pilotan hagitz ongi dabilzanak eta haiei dakitena erakusten eta animatzen saiatuko naiz. Inaxio Errandonearekin ere botillero segituko dut momentuz. Beti lagunak izandu gara eta aberkanpeon ateratzen dugun hortik.

'ASEGARCE'REN SORRERAK PILOTA MUGIARAZI DU. ZURETZAT ONERAKO EDO TXARRERAKO IZAN DA?

Onerako izan da, du-

darik gabe. Nik debutatu nuenean oraindik pilotari ongi zegoen, baina izandu dira urte batzuk gaizki egon dena, jende gutti joaten zen. Enpresa hau sartu denetik, nik uste telebisiogatik izan dela, pilotak aunitz irabazi du.

BERAZ, PILOTAREN ETORKIZUNA NOLA IKUSTEN DUZU?

Hagitz ongi. Jendea pilotaz hitzegiten ari da eta aunitz mugitu da. Orain dela 3-4 urtekan pila bat irabazi du.

**ANTTON MAIZ-EN
KUTXAN BEGIRATUZ**

EZKERREKO ARGAZKIAN, ANDUEZA VI.ARI ESKUZ BANAKAKO TXAPELKETAREN FINALERDIA IRABAZI ONDOTIK, 1980. URTEAN. FINALEAN, RETEGI II.AREN KONTRA GALDUKO ZUEN. BEHITIAN PIETROLA ALMANDOZTARRAREKIN BIKOTE EGINEZ, "EZ DA ORAINTXEKO ARGAZKIA" DIO ANTONEK.

ETORKIZUNERA BEGIRA, AGESTA ETA ERRANDONEA BEZALAKO ARANTZAKO GAZTEEI DAKIENA ERAKUSTEN SAIATUKO DA (ESKUINEAN GOIKO ARGAZKIAN) GARAI BATEAN MAIZ I. BERE ANAIAK BEREKIN EGIN ZUEN MODURA (BEHITIAN, ESKUINALDEAN)



HERRI KIROLAK

Lesakako taldeak irabazi du 680 kiloko Nafarroako sokatira txapelketa

Martxoaren 4ean Leitzako Amazaba frontoian hasiera eman zitzaion Nafarroako sokatira txapelketari. 680 kiloko pisuan bortz talde aurkeztu ziren: Beti Gazte (618 kilo), Areso (657 kilo), Larraun (624 kilo), Txantrea (634,5 kilo) eta Araiz Betelu (656 kilo). Amaiurko taldea berriz, lesioneak zirela medio, ez zen aurkeztu. Frontoia ia beteageri zen eta kanpoko

aldean hotza eta elurra bazen ere, barnean giro epela bizi izan zen.

Frontoia atera ziren lehenengo bi taldeak Beti Gazte eta Areso izan ziren. Lehenengo tiraldiak hiru minutu pasatuak iraun zuen eta bigarrenak bi minutu justu. Bi tiraldiak Lesakako taldearendako izan ziren. Beharbada horiek izan ziren arratsaldeko tiraldirik gogorrenak. Hortik aurrera txapela lortzeko

bidea paseo bat izan zen Lesakako taldearendako, tiraldi guziak aisa irabazi baitzituen.

Bigarren postuan Aresoko taldea sailkatu zen. Talde honek tiraldi bakarra galdu zuen, txapeladunen kontra egin zutena, hain zuzen. Hirugarren posturako borroka bizian aritu ziren Araiz Betelukoak eta larraundarrak. Azkenean Araiz Betelu hirugarren eta Larraun laugarrena.

Hamabostaldiko Jokaldiak



Antton Maiz
Arantzako pilotaria.

Ongi merezitako omenaldia jaso zuen, hogeituz 1.500 partiduko bano gehiago jokatuko ondotik. Adio erran dio pilotari baina hor gelditu da bere errekorra, eskuz binakako bortz txapel irabazi baititu.

Beti Gazte Lesakako futbol taldea.

Hau idazterakoan azken postuan daude Preferente mailan, hamabi partiduren faltan. Hori etatik zazpi etxean jokatuko dituzte, beraz hauxe da josi edo urratzeko tenorea. Animo eta eutsi goiari!

AGENDA EGUNEZ EGUN

KANTALDIK

DONEZTEBE

► **Martxoaren 25ean** arratsaldeko 4,30etan, Nafarroako Haur Kantari Txapelketako finala Bordatxo dantzalekuan.

KONTZERTUAK

LESAKA

► **Martxoaren 18an** gaueko 9etan Herriko Etxeko arkupetan 'Dui', 'TAD' eta 'Komando Tripontzi'.

► **Martxoaren 23an** gaueko 10etan Erramun Martikorenaren kantaldia Kattu ostatuan.

► **Martxoaren 24an** gaueko 11etan 'Standby' Blues-rock taldearen kontzertua Kattu ostatuan.

DONEZTEBE

► **Martxoaren 19an** arratsaldeko 7,30etan, 'Jeremiah Johnson' Zizka ostatuan.

IHARDUNALDIK

BERTIZ

► **Martxoaren 24an** Nekazaritza eta Turismoari buruzko ihardunaldiak. Goiz eta arratsaldez gai horiei buruzko mahainguruak izanen dira publikoari idekiak.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Pasta brisa edo 'pasta fondear'

Osagaiak

• Kilo bat irin • 3 arraultze • 500 gr. gurin • 380 gr. glasse azukrea •

Prestatzeko manera

Arraultzeak, gurina eta azukrea ontzi batean ongi nahasi ondik, irina erantsi, masa idor xa-

marra egin arte. Modu honetara, tarta difentek egiteko behar dugun oinarritzko pasta lortzen da.

Masa honekin, bere hortan, sagar tarta ere egiten ahal da, ondoko adibidean ageri den bezala.

Sagar tarta egiteko, rodillo batekin masa luzatu eta molde batean paratu, bi zentimetroko lo-



Miguel RETEGI
Retegi Goxotegia
• ELIZONDO •

dieraegin arte. Gainean, krema pastelera bota, sagarrak xerratan puskatu eta kremaren gainean jarri. Labean sartu 180ºtan 40 bat minutuz. Hozten denean, gaitetik mermelada igurtzi eta prest dago sagar tarta.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoak): 7.500 pzta.
- Zerri gizona (95-100): 174 pzta/kilo
- Zerramak: 120-125 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
- Idixkoak: Pzta./kg. Kanal
Extra 620
1.koa 590
2.koa 560

- Urruxak: Pzta./kg. Kanal
Extra 630
1.koa 600
2.koa 570
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 23.000 eta idixkoak 40.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 42.000 eta idixkoak 55.000 Pzta.
- Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 420 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 490 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA
MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- Bertako sagarrondoa 950.
- Udareondoa 950 pzta.
- Gereziandoa 1.050 pzta.
- Aranondoa 1.050 pzta.
- Muxika 870 pzta.



❖ BARAZKIAK ❖

- Piper txorizero zientoa 800.
- Piper morro zientoa 800.
- Piperminak zientoa 600.



ZUBIRIA MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)

Faxa: 948-581274



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735

Irun ☎ (943) 622305

Hagineko mina uxatzeko gomendioak

Hagineko mina haginarrak (kariesak) sortzen duen gaitza da gehienetan. Jan ondorean ahoan gelditzen diren azukreak, bertako bakteriak erabiltzen dituzte eta hortik sortzen da hortzak zulatzea. Orain bertan, ehun pertsonetik hogeitaz hortzetatik sufritzeko arriskutan daude, batez ere sei-zazpi eta hamabi-hamahiru urteko umetxoak lehenengo eta bigarrenengo haginak ateratzeko garaian. Orduan aisa sortzen baitzaie haginarra edo kariesa.

Gaitz hau uxatzeko gozokirik ez da jan behar otardu tartetan, eta hortzak garbitu behar dira bazkalondo guztietan hortzeskubila edo zepillo leun batekin eta Fluoruro Sodikoarekin (%0,05 -%0,1) osaturik dagoen ore edo uraren batekin.

Azken urte hauetan haginarraren beharakada nabaria fluorraren erabilpen orokorraren ondorio ona dela esan beharra dago. Fluorrak, hortzak gogortu eta gaitz hau sortzen duten bakteriak



Kariesaren beharakada nabaria fluorraren erabilpen orokorraren ondorio ona da

murriztu egiten ditu. Gaur egun, eztabaida bizia dago gure artean edateko urari eta sukaldako gatzari fluorraren erabilpena dakarren ondorio on eta txarren gain. Medikuek gehienetan

Orain bertan, ehun pertsonetik hogeitaz hortzetatik sufritzeko arriskutan daude, batez ere sei-zazpi eta hamabi-hamahiru urteko haurrak.

onartua den joera eta, dirudenez, zentzuzkoena, honako hau da: norberak fluorraren duten ore eta ura hortzak garbitzerakoan erabili dezala. Hau da denontzat arrisku gutxien sortzen duen erremedioa, eraginkorra eta merkeena izateaz gain. Pertsona bakoitzak bere berezitasunak dituenez, denok dentistarengana azaldu behar dugu noizbehinka, batez ere sei eta hamabi urte dituzten neska-mutikoak.

JOXE JABIER ETXEBERRIA
MEDIKUA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
 - Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

AGENDA EGUNEZ EGUN

ZINEA

DONEZTEBE

- ▶ **Martxoak 18-19.** 'Kika'.
- ▶ **Martxoak 25-26.** 'Heroe por accidente'.

ANTZERKIA

BERA

- ▶ **Martxoaren 18an** arratsaldeko 8,30etan Berako Kultur Etxean, Alfonso Sastrenen '¿Dónde estás, Udalume, dónde estás?' Eolo antzerki taldeak emana.

ERAKUSKETAK

LESAKA-BERA

- ▶ **Martxoaren 18, 21 eta 22an** Bidasoaldeko Hamabostaldi Antimilitaristaren barnean Kartel erakusketak. 18an Lesakan Herriko Etxeko arkupean eta Beran 21 eta 22an Kultur Etxean.

GUARDIAKO BOTIKAK

- ▶ **Martxoaren 13tik 19ra** Lesaka, NARBARTe, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.
- ▶ **Martxoaren 20tik 26ra** Bera, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.
- ▶ **Martxoaren 27tik apirilaren 2ra** Etxalar, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

LEGASA. Etxea salgai bere 200 m²ko baratzearekin. ☎ 450652.

LESAKA. 100 m²ko pisua salgai. ☎ 637306 (arratsetan).

BERA. Pisubat hartuko nuke alkilerrean. ☎ 630557.

ZUBIETA, AURTIZ edo ITUREN. Baseri, etxe edo borda bat erosiko genuke. Marisa eta Mikel. ☎ 450325.

DENETARIK

Kartelak, Buzoiratzeko paperak, Bisita txartelak, Faktura Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188. Bulego orduetan.

Soro edo belagi bat, 10.000 m² ingurukoa alki-latuko nuke. ☎ (943) 211979.

Espositorea salgai. Kanpoko aldean jartzekoa da, metalezkoa eta akrilatua. 42 m²ko. San Miguel Tailerra. ☎ 450711.

Komunioko soina oso-

osoa salgai, behin bakarrik erabilia, merke. ☎ 279171 (Baztanen).

Eskumuturreko erlojua galdu dut Lesakako Inauterietan, igandean. Omega markakoa da. Aurkitu duenari sarituko zaio. ☎ 637498 (arratsetan).

Argazki kamara bat agertu da Rikardo Baroja eskolako jantokian, Ortzegun Gizen egunean. ☎ 630684.

200 watioko amplifikadore salgai, Akai markakoa. 45.000 pezeta. ☎ 452431 (gauetan).

Oilvetti ordenagailua salgai, 340 mega eta 8 RAM. Epson LQ 570 impresora ere salgai. 24 orratz ditu. ☎ 452431 (gauetan).

Baserrirako makinak salgai: belarra mozteko disko makina, belarra bueltatzekoa, lerrotan jartzekoa eta biltzekoa eta paketatzeko makina. Baita bi behi batera jeitzen dituen ordeñadora ere. ☎ 630871.

IBILGAILUAK

94ko Yamaha 600

Diversio motoa, NA-AK eta bere mailetak salgai. ☎ 220811.

Opel Frontera salgai, oso egoera onean, NA-AH. ☎ (943) 216852-216093 (goizeko 8etatik 1etara). Erantzungailua, arratsalde eta gauetz.

Opel Corsa salgai, NA-T matrikuladuna. 280.000 pezetatan. ☎ 631481 (gauetz deitu).

Yamaha RD 350 z.k. CL motoa salgai. ☎ 452136 (arratseko 9etatik aitzine-rra, Angel).

AZIENDAK

Samoiedo arrazako sei zakurkume salgai. ☎ 637896.

Bruno de Jura arrazako zakur bat, hazitarako eskeintzen dut. ☎ 615040.

Piriniotako Mastina arrazako zakurra salgai Leitzan. Bi urte egin beharrak. ☎ 610858.

LANA

Neska batek lan egingen luke arratsaldetan. ☎ 627587

(Kontxita, arratsaldetan).

Gitarra elektriko eta basu klaseak ematen ditut. ☎ 630217.

Leitzan bi igeltsero prest leudeke zure etxeko berrikuntzak egiteko. ☎ 510089 (Mikel).

Irakasle tituluduna eta EGAREKIN urte osoan Beran eta Lesakan klase partikularrak emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839 (Klarisa).

Neska bat eskeintzen da, 21 urtekoa, arratsaldetan haurrak zaintzeko edo etxea garbitzen lan egiteko. Badut esperientzia. ☎ 450491 (Ane, 8etatik goiti).

AGURRAK

Berako Jonatan Agirri; ba al dakizu neska aunitz atzetik daukazula? Ni horietako bat naiz. Berako bestetan zutaz maitemintzen nintzen, batez ere zure ipurdi goxoaz. Muxu bero bat zure ezpainetan.

Maribi, zure 22. urtebe-

tetean zorionak eta aunitz urtez, ea elkarrekin ospatzen dugun. Maite zaitut.

Doneztebeto mutil koxkor Alfredori: hemen nago berri-rriz, larunbatero. 'Kafe' os-
tatan ikusten zaitut eta arras ona zaude disjokei bezala. Musu bat M.A.

Laitzako Gorkari Lesakako Kontxiren partez maite zaitut, nire palillo maitea.

Berako Joneri: arras polita zara. Muxu bat. Sudur haundia eta Sudur zimur-
raren partez.


Elizondoko Txomin-i: Zorionak zure 13. urtebe-
tetean zure lehengusu Joanes eta Nahiaren par-
tez.

Urdazubiko Landibar au-
zoko Anttoni eta Olabideko Lourdes Mendiberriri: Zorionak (martxoak 10) eta egun bat pasa dezazuen Urdazubitik.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak,
etxe saltzaile bat...**

**Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**



AMAIUR



SUKALDE ALTZARIAK




BAINUAK



*Udaberria
begira*

*Orain
aukera polita duzu
zure sukaldea eta bainuak
berritzeko*



*Etorri eta ikusi estilo desberdinak
Zurak, formikak, etabar...*

Rosa Seminario, 13 • ☎ 45 04 00 • DONEZTEBE

Marka eta modelo guziak




RENAULT

ESKU-LANA DOHAINIK

Olio aldaketa

Freno-pastillak aldatzea

Amortiguadoreak aldatzea

PEDRO GARMENDIA, S.A.
RENAULT • ELIZONDO

Frantziarako karretera 57. km. - Tfnoa.: 580431/6

ETXANIZ

Lesakako Iturria anaiak

Erakustokia:

Juan Arana 1 • Tfnoa eta Faxe: 943-611767

Biltegiak: Juan Arana 3 • IRUN

**APAINZAZU ZURE BAINUA
UDABERRIRAKO**

Irungo Almacenes Etxanizen
parerik gabeko aukera duzu

**SAUNA eta HIDROMASAI, MOBLE, ISPILU, GRIFERIA,
MANPARA, BAINUGELAKO OSAGARRI, DUTXAKO
KORTINA, BAINURAKO ALFONBRA...**